

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 5399

*41/2021 DEKRETUA, urriaren 19koa, lehendakariarena, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeko kide bat aldatzeko dena.*

Lehendakariaren otsailaren 12ko 8/2021 Dekretuaren bidez, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeko kideak izendatu ziren. Kide horiek batzordean ordezkatuta dauden erakundeek alde aurretik aukeratu zituzten. Lehendakariaren otsailaren 23ko 11/2021 Dekretuaren bidez huts-zuzenketa bat egin zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak beste kide bat aukeratu du, orduan izendatutako kidea ordezkatzeko; beraz, bidezkoa da beste kide hori izendatzea ordezkatuari geratzen zaion agintaldirako. Horregatik guztiarengatik, Euskal gizataldeekiko harremanetarako organoak arautzen dituen apirilaren 11ko 234/1995 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Ander Arzelus Aramendi jauna Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari izendatzea, Sebastián Zurutuza Mujika jauna ordezkatzeko.

Bigarren artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 19an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.